Mix, mix, mix!

Familientzako jarraibideak

Mix, mix, mix! liburuan, Linda ezberdinak sortzeko piezak konbinatuko ditugu; Lindari arropa eta gogo-aldartea aldatuko dizkiogu, Linda dagoen tokia aldatuko dugu...

Liburu honekin, haurtxoek Lindaren burua, gorputza eta hankak konbinatuko dituzte, eta, aldi berean, arroparekin, gogo-aldarteekin, ekintzekin, eta abarrekin erlazionatutako egiturak eta hiztegia ikasiko dute.

Nola funtzionatzen du?

Liburuaren barne-orriak hiru zatitan banatuta daude: Lindaren burua, gorputza eta hankak. Toles hauei esker, hainbat orritako zatiak konbina ditzakegu, aukera ugarirekin. Esate baterako, aurpegi bera mantendu dezakegu, eta jantziak aldatu; hots, soineko batetik zira batera pasatu. Horrela, haurtxoaren jakin-mina sustatuko dugu, bai eta bere sormena ere.

Hemen azaltzen dugu nola erabili liburua Talking Pen-arekin eta gabe.

Talking Pen-arekin: hasteko, Talking Pen-a azaleko Start botoiaren gainean jarriko dugu eta, jarraian, testuen gainean jarriko dugu, audioak aktibatzeko.

Talking Pen-a azaleko tituluaren gainean jartzen badugu, hau entzungo dugu: *"Mix, mix, mix. Let's play with Linda!"*

2. orrian hitz garrantzitsuenen glosario bat dago. Talking Pen-a elementuen gainean jartzean aktibatuko dira audioak.

Gainerako orrietan, Talking Pen-a elementuen gainean jarriko dugu, dagokien esaldiak irakurtzeko.

Talking Pen-a gabe: glosarioko testuak eta orri konbinagarriak irakurriko ditugu. Batik bat glosarioko hitzak nabarmentzea gomendatzen da. Aukeran, zenbait galdera erabil ditzakegu, audioen irakurketari laguntzeko:

- ***"What is Linda wearing?"*** *"Linda is wearing..."*, arropari buruz galtzeko.
- ***"What is Linda doing?"*** "*Linda is blowing a kiss / is sleeping..."*, ekintza bati buruz galdetzeko.
- ***"How is Linda?"*** *"Linda is happy / sad / angry"*, gogo-aldarteari buruz hitz egiteko.
- ***"Where is Linda?"*** *"Linda is on the grass / in a puddle / in the bath / at the beach"*, Linda non dagoen galdetzeko.

Garrantzitsua da, gainera, haurtxoa zoriontzea zuzen erantzuten duen bakoitzean, esaera hauek erabilita, besteak beste: *"Very good!"*, *"Well done"* eta *"Good job!"*.

Kids&Us®
language school